

Basque Culinary Center-eko "Sukaldatu"-k, Eroski eta Ikastolen Elkarteak Orereta Ikastolan elkartuko dira aste honetan sukalde osasuntsua sustatzeko.

2015/01/13

- Proiektuaren abiapuntua honako gogoeta hau da: lagunartean eta, batez ere, familiarean kozinatzea eta jatea funtsezkoak dira osasuntsu jaten ikasteko.
- Ikasturte honetan guztira hiru lurraldeetako 16 ikastolak, 10 eta 14 urte bitarteko 1.280 neska-mutikok eta 320 gurasok hartuko dute parte.
- Familiarteko sukaldaritzak funtsezko eginkizuna du osasuna hobetzeko, tokian tokiko ekoizleei laguntzeko eta senideen arteko harremanak sendotzeko.
- Iaz, guztira 13 ikastolak, 1.065 ikaslek eta 289 gurasok hartu zuten parte proiektuan.

(Gehiago irakurri)

